

4GUNE

Euskadiko Ingeniaritza, Zientzia eta
Teknologiako Unibertsitate Hezkuntzako
Klusterria.

Enpresa+unibertsitatea programa

2020ko apirila



BASQUE GOVERNMENT
Ministry of Education

ENPRESA+UNIBERTSITATEA KONEXIO PROGRAMA

Programaren helburua enpresarako

Programa horren xedea unibertsitatea enpresara hurbiltzea da, bien arteko lankidetzak praktikoa enpresa erronken bitartez sustatuta. Erronkak gaitasunak aktibatzen bideratuta daude, eta ikasleen eta unibertsitate irakasleen parte hartzea sustatzen dute. Horrekin hauek lortu nahi dira:

- Gaitasun handiko giza kapitala garatzea eta finkatzea erraztea.
- Enpresa erronkei erantzun optimoa eta balio handiagokoa ematea.
- Talentua goiz atzematea eta atxikitzea, neurri eta irismen handiagoko erronkak ebazten jarraitu ahal izan dezan.
- Ezagutza transferentzia sustatzea, eta bikaintasun ingurune bat sortzen laguntzea.
- EAEko unibertsitateen sarearen eta enpresen baliabideak optimizatzea.
- Gazteen trebakuntza eta prestakuntza indartzea.

Nork eskaintzen du?

4GUNEK, Euskadiko Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiako Unibertsitate Hezkuntzako Klusterrak. Hauek biltzen ditu horrek: EAEko Unibertsitate Sistemako hamaika ikastegi, Basque Industry 4.0 pilotaje taldea, Innobasque, Confebask eta horren kide Adeg, Cebek eta SEA, eta SPRI.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuordetzako Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzari dagokio klusterraren presidentetza. Bestalde, jarduketan dinamizazioa, sistemaren modelizazioa eta RIS3 espezializazio estrategiarekiko lerrokatzea, besteak beste, idazkaritza teknikoaren lanak dira, eta Euskampus Fundazioak egiten ditu.


Zer eskaintzen du?

4GUNEko unibertsitate zentroetako ikasleek sektore jakin bateko enpresek proposatutako erronkei aurre egiten diete, irakasleek eta enpresa arduradunek batera gainbegiratutako proiektuak gauzatu. Proiektuak ikasleek banaka egin ditzakete, eta horietatik gradu amaierako lanak (GRAL) edo master amaierako lanak (MAL) ateratzen dira. Taldean ere egin daitezke, irakasgai baten barruan.

Nola garatzen da?

Sekuentzia honi jarraikiz garatzen da programa:

1. Enpresek erronkak proposatutako dizkiote 4GUNE klusterraren idazkaritza teknikoari.
2. 4GUNE klusterraren idazkaritza teknikoak ikastegiaren artean banatuko ditu erronkak.
3. Zentroek beren aurreproposamenak bidaliko dizkiote 4GUNE klusterraren idazkaritza teknikoari.
4. Enpresek beren itxaropenetara hoberen egokitzen diren aurreproiektuak hautatuko dituzte; helburua da kosorkuntzako prozesu bat hastea, proiektu bat definitzeko.
5. Proiektuak 4-6 hilabetetan gauzatu dira, definitu ondoren.



Enpresarentzako kostua

Erronkak ebatzi ahal izateko, enpresek ekarpen ekonomikoak egingo dituzte. Hauek izango dira gutxieneko ekarpenak:

- GRALen bidez ebatzitako erronkak:
 - Ikaslearentzako: 1.440 €, ordainketa bakarrean (amaieran) edo bi ordainketatan (hasieran eta amaieran).
 - Unibertsitate zentroarentzako: 960 €, ordainketa bakarrean (amaieran) edo bi ordainketatan (hasieran eta amaieran). Proiektuarekin erlazionatutako gastuetarako erabiliko dira.
- MALen bidez ebatzitako erronkak:
 - Ikaslearentzako: 1.680 €, ordainketa bakarrean (amaieran) edo bi ordainketatan (hasieran eta amaieran).
 - Unibertsitate zentroarentzako: 1.120 €, ordainketa bakarrean (amaieran) edo bi ordainketatan (hasieran eta amaieran). Proiektuarekin erlazionatutako gastuetarako erabiliko dira.
- Ikasgaiaren bidez ebatzitako erronkak:
 - Ikastegi edo fakultatearentzako: 3.000 €-ko zenbatekoa edo bestelako konpentsazio bat erronkako eta ikastegiko. Konpentsazioa ikasleei mesede egingo dieten edo erronka ebatzea erraztuko duten material edo zerbitzuetara bideratuko da (ikasleak kongresuetara joatea edo horiek horietan parte hartzea; inbertsio txikiak egitea, ekipoak hobetzeko; adituak gonbidatzea, eta abar).

Alderdien konpromisoa

Bi hitzarmen mota egingo dira.

1. Hezkuntza lankidetzako hitzarmena:

592/2014 Errege Dekretuan jasotako hezkuntza lankidetzako hitzarmenek ikaslearen, erakunde kolaboratzailearen, unibertsitatearen eta, hala badagokio, azken horri lotuta dagoen eta praktikak kudeatuko dituen erakundearen arteko harremanak arautuko dituen esparrua zehaztuko dute.

2. Transferentzia akordioak (Unibertsitateei buruzko Lege Organikoaren 83. artikulua araberako kontratua):

Kontratu bat sinatuko dute enpresak eta unibertsitateak, irakasleak egingo duen tutoretza transferentzia ordutzat hartzea baimentzeko.